

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Etiopiak eta Munduko Bankuak Nafarroako Ubidearen zonalde ureztagarriari buruzko interesa agertu dute

Barcina Lehendakariak bi erakundeetako ordezkariak hartu ditu Foru Erkidegora egiten ari diren bisita dela eta

Lunes, 05 de septiembre de 2011

Etiopiako Gobernuaren eta Munduko Bankuaren hamahiru ordezkari osatutako ordezkari-tza batek astelehen eta astearte honetan, irailak 5 eta 6, Foru Erkidegora bisitatzen ari dira Nafarroako Ubidearen zonalde ureztagarriaren funtzionamendua eta esperientzia ezagutzeko asmoz.


Ordezkaritzari, Etiopiako Ur eta Energiaren ministro Kebeded Gerba buru dela, Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Yolanda Barcinak eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoecheak egin die ongi-etorria, Gobernuaren egoitzako Areto Berdean.

Lehendakariak "anbizio handiko proiektu horren aurrean miresmen zintzoena" agertu die Lehendakariak. Proiektu horrek, lehen fase batean, lehorreko 20.000 hektarea ureztatzen zonaldean bihurtzea aurreikusten du. "Erronka erakargarria duzue aurretik, eta behin gaintuta, Etiopiaren garapen ekonomikoa ekarriko du eta baita bertako herritar guztien bizimodua hobetzea ere", baieztatu du Barcinak. Horregatik, "ahalegin horretan etsi ez dezazuen animatzen zaituztet".

Ildo horretatik, Etiopiako ministroak adierazi du bere Gobernua gogor ari dela lanean herrialdea garatzeko asmoz. Hark baieztatu duenez, helburua Etiopia 10 edo 15 urtetan Afrikako ekonomia boteretsuenetako bat bihurtzea da. Horretarako, herrialde afrikarrak bere garapen ekonomikoa azkarra izatea bilatzen duen hazkunde eta eraldatzeko plan bat abian jarri du. Gerbak



Barcina Lehendakaria Etiopiako ordezkari-tzako kideei hitz egiten.



Barcina Lehendakaria eta Goicoechea kontseilaria Etiopiako ordezkari-tzako kideekin.

azaldu duenez, azken bost urteotan Afrika Ekialdean hazkunde handienetakoa izan duen herrialdea da Etiopia.

Bi egunetako bisitaldiei eta bilera teknikoei hasiera eman dien ekitaldian zehar, bi ordezkariak opariak eman dizkie elkarri. Hala, Barcina Lehendakariak ministroari "Navarra, innovating people" izeneko liburuaren ale bat eman dio, eta ministroak, berriz, Barcinari Etiopiari buruzko argitalpen bat ("The beauty of historic Ethiopia").

20.000 hektarearen ureztapena abian jartzea

Etiopiako Errepublika Federal Demokratikoko Gobernuak eta Munduko Bankuak herrialde afrikar horretan ureztatze berrien 20.000 hektarea garatzeko nahia dute, Nilo Ureztatu eta Drainatzeko Proiektuaren barnean, bai eta beste 80.000 hektareatarako ere bideragarritasun-azterketak gauzatzea ere.

Megech-Seraba eta Ribb zonaldeetan –biak ere Tana lakuaren eskualdean- proiektatutako plan horien helburua, eraldatutako hektarea bakoitzaren nahiz erabilitako eskulanaren nekazaritzako ekoizpena eta produktibitatea handitzea da. Euri-urean oinarritutako iraupeneko nekazaritza merkatura bideratutako ureztatze-nekazaritza batean eraldatzea da kontua. Proiektua 2015erako amaituta izatea espero da.

Zonalde ureztagarria eraikitzeke lanez gain (hori garatzeko arlo horretan Nafarroak dituen ezagutzak baliatu nahi dituzte), Etiopiako Gobernuak eta Munduko Bankuak interesa dute: Foru Erkidegoan egindako jabetzaren berrantolaketa-prozesuak ezagutzeko, erkidego ureztatzaileen funtzionatzeko mekanismoa ezagutzeko eta zonalde ureztagarrien mantentze-lan eta kontserbaziorako erabilitako sistemak ezagutzeko.

Horretarako, Nafarroan egongo diren bitartean, Riegos de Navarra SA erakunde publikoarekin (erakunde hori da Nafarroako Ubidearen sustatzailea), Aguacanal zonalde ureztagarriaren esleipendun erakundearekin eta Canasa Nafarroako Ubidea egin zuen enpresarekin bilera teknikoak burutuko dituzte. Gainera, ubidea ureztatzeke zenbait sektore bisitatuko dute eta baita Artaxonan dagoen Nafarroako Ubidearen Kontrol Zentroa ere. Horrekin batera, Bardeetako Ubideko Ureztatzaileen Komunitate Orokorrearekin bilera bat egitea ere aurreikusita dago, haren barne-funtzionamenduaren berri izateko eta esperientzia ezagutzeko.

Nafarroara egindako bisita, Ebroren delta eta Proventzako ureztatzeak ere ezagutzeko ordezkariak Espainia eta Frantziatik egingo duten astebeteko bidaiaren barnean kokatzen da.